

tez, Batzordea zutik jartzea erabaki zuten, eta baita lortu ere, bere zeregina, argi bait zegoen: Euskal Herri osoak, eta bere ezaugarriengatik Erreterriak (industrializazioa, inmigrazioa...) euskara mailan jasaten duen atzerakada kontutan izanik, ezinbestekoa gertatzen zen Batzorde berezi bat mantentzea, nahiz eta beste Batzordeekiko harremanak edo zerikusirik izan. Osatzaileek, hizkuntz politika baten beharrez jabeturik, jaio zeneko helburuari ekin zioten: Erreterriako sektore guztietan, eta herritarren parte-hartzeaz, euskararekiko arazoaren iharduera aurrera eramane, eta euskalduntze-prozesua bideratu eta bultzatzeko. Geroz eta baldintza gogorragoetan aurkitzen den euskararen erabiltze soziala lortzeko; ez bait da nahiko goitik behera markatutako plangintza (nahiz eta Erakunde Gorenei egokitu lan hori), azken finean, herritarren aldetik, onarpen soziala lortuko duen aginte maila Udala da, bera bait da herritarrengandik hurbilena dagoena.

GABINETE TEKNIKO.

Behar beharrezkotzat jotzen da, lana ongi egitearren, eta lortzen den bitartean, itzultzaile bigarrena hartzeko asmoa dago.

SIADCO

Batzordeak, benetazko lana aurrera eramateko, Herriaren egoera soziolinguistikoa, ongi ezagutu behar du, eta horretarako SIADCO-ri eskatu dio presupostua, honi buruz: hizkuntz politika batetarako oinarriak jartzearen, 2.000 ta piko inkesta egiteko, auzo bakoitzean mostra bat hartuz, eta bakoitzarekin, ordubeteko elkarrizketa eginenez, honela, auzoz auzo, erabilpenaren arazoa ikusiko da, arlo eta maila guztietan, eguneroko bizimokuan. Azterketa hau egitea, Batzordeak, ezinbestekotzat ematen du, praktikotasuna lortzeko asmotan.

HAURREN EUSKALDUNTZEA

Helduen euskalduntzerako, Euskaltegia martxan izanik, haurren euskalduntze-arazoari ekin dio Batzordeak, nahiz eta jakin, ez dagokiola Udalari Irakaskuntza arazo hori konpontzea, Batzordeak, ezin du itsu geratu herritarren eskaeren aurrean. Horretarako, Auzoelkarteekin batera ari da lanean. Inkesta egin zen auzoz auzo, eskola-orduetatik kanpo euskara ikasteko nahia zutenen kopurua ezagutzeko, eta ondoren, fitxa batzu bete dira, datuak, dagokion Erakundeari igortzeko, eta erantzunkizunak eskatzeko. Bitartean, «Ibai-alde», Ostarre, Galtzaraborda, Gabierrota, Agustinak, Erdialdean, eta Pontikan, haurrei euskara irakatsi zaie, Udalak, irakasleen soldata ordaindu

duelarik. Nahiz eta Batzordeak, oztopo handiak izan bere gastu proposamenak aurrera eramateko, ezinbestekoa da, hurrengo ikasturtea, haurrentzakoa, antolatzea, Auzoelkarte guztiek parte hartuko dutelarik: honela, aurrean, Igantzi-k eta Kaputxinoetako Auzoelkarteetan ere, emango zaie euskara haurrei. Halere, eskoletarako horniketak eta lokalak euskuratzeko, zailtasun handiak ditu Batzordeak.

EUSKARAREN ALDEKO KANPAINAK

Ohi denez, Maddalena aurretik, kanpaina egin zuen Batzordeak, nahiz eta arrakasta handirik ez izan

Gabonak aurretik ere, kanpaina egin, beste modura planteiatuz, «slogan»-ak erabili ziren: txapetan «EUSKARAZ MESEDEZ», karteletan, «EUSKARAREN ALDE, DEFENTSARIK ONENA, ERABILPENA», eta kartel borobilez, Erreterriari buruz eskura ditugun datu soziolinguistikoak zabalduz. Egutegiak zabaldu ziren, eta liburuen salerakusketa ere, egin zen.

DENDETAKO ERROTULAZIOA

Euskararen presentzia kaleratu behar dela ta, erraztasunak ematearren, Herriko denda guztietan, denda-izena adierazten duten paperezko errotuluak banatu ziren, kanpaina giroan, banaketa, langabetuek egin zutelarik, eta onarpen handia izan da jendearen aldetik.

Oraindik, zeregin handiak geratzen dira errotulazio mailan, eta Batzordeak baditu proiektuak: adibidez, Merkaturako errotulazioa, barnekaldetiko prezioak, eta kanpokaldetiko kartelak ere, bulego eta lantegi guztietan eredu jarrai dezaten eskatuko duela, ez bait ditu medio handirik Batzordeak.

BATZORDEAREN IKURRA

Nortasuna lortu nahiean, Batzordeak, ikurra edo sinboloa aukeratu zuen: guztiok ezagutzen duzue: alfa-omega hori da, ofizialki, Euskararako Batzordearen ikurra, Erreterriako Udalarena.

...Azkenik, esan behar dugu, nahiko lotuak aurkitzen garela gure asmo onak aurrera eramateko, horretarako, dirua eta boterea behar bait da, bainan herritar guztiak eskatzen diegu lagun gaitzaten, sugerentziak eginaz, beren beharrak aurkeztuz, eta parte-hartuz (badakizue, itzulpen zerbitzu publikoa duzuela Udaletxean, informatzeko, eta laguntzeko), Batzordea, erabat, irekia bait da, eta talde eta pertsona guztien arteko gauza da, gure hizkuntza.

Comisión de Sanidad y Servicios Sociales

Componentes de la Comisión:

Presidente: Doña Avelina Jauregui

Concejales: Doña Carmen Ruiz

D. Pedro Zulet

Doña Mertxe Usabiaga

Exponemos en breves líneas y como en años anteriores la labor que ha desarrollado esta Comisión.

Centro de especialidades

Ya han comenzado las obras de este centro y esperamos que estén finalizadas para el año 1985, así como su puesta en funcionamiento.

Asimismo informamos que tras laboriosas gestiones de esta Comisión con anteriores Directores Provinciales de Insalud, por fin es el actual Delegado Sr. Yuste Grijal-

ba, quien ha impulsado las obras de reforma interior y exterior del Ambulatorio de Iztietia y han comenzado a impartirse las especialidades de: Traumatología, Digestivo, Pulmón y Corazón, Otorrinolaringología, Oftalmología, Cirugía General y Análisis.

Centro Municipal de Información Sexual y Control de Natalidad «Ilargi»

Se continua atendiendo en el mismo en horario de 9 a 12 y de 4 a 8. El rendimiento del centro es pleno, pero debido a lo reducido del local y a la gran afluencia de usuarias, confiamos que en breve plazo se incluya este servicio en el Nuevo Centro de Especialidades que se está construyendo en Larzabal.

Residencia Municipal de Ancianos

Actualmente el proyecto elaborado por los Técnicos del Ayuntamiento ya está terminado y en vías de aceptación por la Excm. Diputación Foral de Guipúzcoa, Organismo que va a subvencionar las obras de la Residencia.

Plan de Emergencia Social. Ayuda domiciliaria

Continua adelante este Plan, basado en la colaboración entre Diputación y Ayuntamiento, y que se inició en

Octubre del año 1982. Se atiende a personas con deficiencias físicas y psíquicas en cuanto a: limpieza domiciliaria, aseo personal, preparación de comidas, recados, compras, limpieza de ropa, cosido, planchado, compañía, etc., habiéndose ampliado el servicio durante el año 1984.

Clubs de Jubilados

El día 19 de Marzo se inauguró el Club de Jubilados del Barrio de Galtzaraborda, siendo con este tres los Clubs Municipales de barrios, Beraun, Gabierrota y Galtzaraborda.

Asimismo y con el fin de atender a los abuelos, se encuentra abierto el Club de Jubilados del Barrio de Kaputxinos, aunque el mismo se encuentra pendiente de la realización de pequeñas reformas. No obstante esperamos que estas deficiencias sean subsanadas en breve plazo.

En el barrio de Alaberga han sido adjudicadas las obras del Club de Jubilados a la Real Compañía Asturiana, habiéndose comenzado ya las mismas.

Módulo Psico-Social

En el año y medio de funcionamiento de este centro se llevan vistos 620 casos de los cuales el 30% corresponden a toxicómanos; el 15% a alcoholismo y el 5% a infantil con programas muy determinados y 50% a Psiquiatría General.

El Equipo Interprofesional del Módulo se encuentra satisfecho con la labor que están realizando. Asimismo de Septiembre a Junio próximo está prevista la ampliación de personal que trabaje en el centro, con tres miembros post-graduado en prácticas, con el fin de atender mejor la demanda de servicios existentes.

Hogar del Jubilado de la Seguridad Social

Para este tema se cuenta ya con un calendario de actuaciones previstas para a que se pueda dar comienzo a las obras de construcción del Hogar que irá ubicado en el Polígono de Olibet, por lo que esperamos que en breve plazo se cumpla el calendario establecido para el comienzo de las obras.

Recordamos a todos los jubilados que este Hogar contará con amplios servicios asistenciales para todos los jubilados del pueblo.

Para terminar, el deciros que aún cuando tenemos grandes ilusiones en los temas de juventud, mujeres y ayuda al consumidor, nos hemos visto en la necesidad de aplazarlos por falta de medios económicos.

Rentería a 12 de Junio de 1984

La Presidente de la Comisión

Dña. Avelina Jauregui

OSASUN ETA GIZARTE ZERBITZUETAKO BATZORDEA

Batzordearen osatzaileak:

Lehendakari : Avelina Jauregi anderea.

Kontzejalak : Carmen Ruiz anderea.

Pedro Zulet jauna.

Mertxe Usabiaga anderea.

Aurreko urteetan bezala, laburki, Batzordearen iharduera ematen dugu aditzera:

Espezialitate-Anbulategia:

Lanak, hasiak dira, eta 1985erako burutuak izango direlakoan gara: baita ere ordurako martxan jarria izango dela.

Era berean, aditzera eman nahi dugu, Batzordeak gestio ugari eraman zituela aurrera lehengo INSALUD-eko Zuzendariekin, eta azkenik, egungo ordezkari den Yuste Grijalba jaunak, bultzatu duela Iztietako Anbulategiko kanpo eta barneko berriketa, eta hurrengo espezialitateak hasi dira martzan: Traumatologia, Digestiboa, Birika eta Bihotza, Otorrinolaringologia, Oftalmologia, Kirurgia Orokorra eta Analisisak.

«Ilargi», Sexu-Informazio eta Jaioakuntza Kontroltegia

Zerbitzua eskaintzen da, 9retatik 12retara, eta 4retatik 8retara. Emaizta ugari ematen da, baina tokia txikia izanik, eta erabiltzaile asko, asmoa dugu, Lartabal-en eraikitzen ari den Espezialitatetarako Anbulategi berrian, barne eman ahal izatekoa.

Zaharren Udal Egoitza.

Udal teknikoek, burutu dute, Zaharren Egoitza eraikitzeke proiektua, eta Gipuzkoako Foru Diputazioak onartzekotan, honek lagunduko bait du diruz, eraikitze-lanak.

Gizarte Larrialdi-Plangintza. Etxebizitzetarako laguntza

Plangintza hau, Diputazio eta Udalaren arteko elkar-lanean oinarritzen da, eta 1982ko urrian hasi zen martxan. Fisiko nahiz psikiko-akasdunei laguntzen zaie, honela: etxebizitzaren garbiketa, pertsonen garbiketa, janariaren prestaketa, mandatuak, erosketak, arroparen garbiketa: josteta, plantxaketa... zerbitzu hau, zabaldua izan da 1984-tik aurrera.

Erretiratuen Elkarte

Galtzarabordako Erretiratuen Elkarte, martxoaren 19an zabaldu zen, honekin, 3 udal Elkarte direla: Beraungoa, Gabierrotakoa, eta Galtzarabordakoa.

Era berean, zaharrei laguntzearen, Kaputxinoetako ere zabalik dago, nahiz eta zenbait aldaketen beharra izan, laster konponduko direlakoan gara.

Alabergan, «Real Compañía Asturiana»-ri adjudikatu zaizkio lanak, asiera eman dira.

Psiko-Gizarte Modulua

Urte t'erdi dirau martxan Modulua, eta 620 arazo ikusiak izan dira, hoietatik, %30 toxikozaleenak, %15 alkoholozaleenak, %5 haurrenak, eta %50 Psikiatria Orokorri dagozkionak.

Moduluko Langile-Profesionalen Taldea, pozik dago aurrera eramaten duen lanarekin, eta irailatik ekainara, langileak gehitzeko asmoa dago, 3 post-graduaduen bidez, dagoen zerbitzu-eskaerari, hobe erantzuteko.

Segurantzaren Sozialaren Zaharretxea

Olibet Poligonoan kokatuko da, eta eraikitze-lanak hasi ahal izateko, egutegia, prestaturik dago, behar bezala beteko dela, uste dugularik.

Herriko zahar guztiei gogorarazi nahi diegu, laguntza zerbitzu handia eskainiko dela erretiratu guztientzat.

Bukatzeke, esan behar dugu, nahiz eta asmo eta ilusio handiak izan, hurrengoek buruz: gaztedia, emakumeak, eta kontsumatzaileari laguntza, diru-bitartekorik ez duguenez, atzeratu behar izan ditugula.

Erreterian, 1984ko ekainaren 12an

Batzordearen Lehendakariak,

Sn: Avelina Jauregui